



## ESPERIMENTUA: ALDA AL DEZAKEZU URA IZOZTEKO BEHAR DEN DENBORA?

Zer gertatzen da urari osagai gehiago nahasiz gero? Aldatuko al du ura izozteko behar duen denbora? Ba al dago osagaiaren bat urari nahasiz gero izozkailuak izoztea eragotziko liokeena?

**SAIATU ASMATZEN:** Zure ustez, urari sukaldeko osagaiak gehituta, aldatu egingo al da urak izozteko behar duen denbora?

### ESPERIMENTUA EGITEAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Gogoratu aldatu beharreko gauza bakarra urari sukaldeko osagaiak gehitzea dela. Gainerako gauza guztiak berdin mantendu behar dira!

- Gogoratu beti ur-kantitate bera erabiltzea.
- Zer osagai erabiliko dituzu? Bakoitzetik zenbat? Zenbat ur?
- Zenbat denboran egingo duzu esperimentua?

### DATUAK

- Nola neurtuko duzu zenbat denbora behar duen urak izozteko?
- Zenbatean behin begiratuko duzu?

## ZER IKASI DUZU ESPERIMENTU HONETATIK? ZER GERTATU DA? ZERGATIK USTE DUZU GERTATU DELA?

### Bizitza errealean...

ZERGATIK USTE DUZU BOTATZEN DELA NEGUAN GATZA ESPALOI ETA BIDEETAN?

ZER GERTATUKO LITZATEKE PROBATUTAKO OSAGAIETAKO BAKOITZETIK ASKOZ GEHIAGO BOTAZ GERO? DENBORA BERA BEHARKO OTE LUKE IZOZTEKO?

ROSAK (8 URTE) ARROSAZ TINDATUTAKO UREZ BETETAKO ONTZIAK JARRI ZITUEN ERRETILU BATEAN. ONTZI BATEAN URA SOILIK ZEGOEN, ETA, GAINERAKO ONTZIETAN, KOILARATXOKADA BAT EPSOM GATZ, KOILARATXOKADA BAT MAHAIKO GATZ, KOILARATXOKADA-LAURDEN ONTZIAK GARBITZEKO XABOI, KOILARATXOKADA-ERDI AZUKRE ETA KOILARATXOKADA BAT ARTO-ZIROPA ERABILI ZITUEN. UR HUTSA IZOZTU ZEN LEHENIK, ETA, HAREN ONDOREN, XABOIDUNA ETA EPSOM GATZA ZUENA. UR GUZTIA IZOZTU ZEN LEHENAGO EDO GEROAGO.



**MAILA AURRERATUA:** Zer beste galdera dituzu ura izozteari buruz? Diseinatu esperimentu bat galdera horri erantzuteko.